EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

EBAZPENA, 2000ko azaroaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, 53/00 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bidez kontratu bat adjudikatuko da, UPV / EHUren Arabako Campuseko zentroetarako altzariak erosteko.

22932

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

RESOLUCIÓN de 24 de noviembre de 2000, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia Concurso Público 53/00 para la Adjudicación del Contrato de suministro mobiliario para centros de la UPV / EHU en el Campus de Alava.

22932

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

Zk-5739

238/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia sortu eta berorren antolakuntza eta jarduteko modua ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeko 26. artikuluan ezartzen da, ezarri ere, estatistikarako organo berezia eraturik duten Jaurlaritzako sailek burutuko dutela Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika jarduna; betiere, lege horretan xedatutakoa betez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundearen partaide bihurtuz. Lege horretako 27. artikuluan ezartzen denez, estatistikarako organo bereziek berariazko arauak izango dituzte.

Sailetako organo estatistikook sortzea, antolatzea eta jardunean jartzeari buruz lege horretan jasotako manuak garatzen ditu ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak, hots, Jaurlaritzaren Sailetako Estatistiketarako Organo Bereziak arautzen dituenak.

Jaurlaritzako Sailek Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programetan berariazkotzat jotako estatistikak eta jarduerak burutu ahal izateko, beharbeharrezkoa izango da euren Estatistikarako Organo Berezia izan dezaten, hori baita 180/1993 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen dena.

Estatistika alorrean Osasun Sailaren jardute-eremua osatzen duten sektoreetan sortu diren beharrek organo bat sortzea eskatzen dute, hain zuzen ere, Sailaren egituran sartuko dena. Organoaren harremanak eta jarduteko modua estatistikako legeek arautu, babestu eta mugatuko dituzte, batik bat sekretu estatistikoari dagokiona.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

N°-5739

DECRETO 238/2000, de 28 de noviembre, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad y se establece su organización y funcionamiento.

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 26 que aquellos Departamentos del Gobierno que tuvieran constituido en su seno un órgano estadístico específico llevarán a cabo, en los términos previstos en dicha Ley, la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conformándose de esta manera en una parte integrante de la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma. A su vez, el artículo 27 del mismo texto legal remite la regulación de los órganos estadísticos específicos a su normativa propia.

El Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno, desarrolla las previsiones contempladas en la precitada Ley en cuanto a la creación, organización y funcionamiento de dichos órganos estadísticos departamentales.

La Disposición Adicional Primera del Decreto 180/1993 establece, además, que para que los Departamentos del Gobierno puedan realizar las estadísticas y actuaciones incluidas como propias de ellos en el Plan Vasco de Estadística o en los Programas Estadísticos Anuales, será requisitos indispensable que los mismos dispongan del correspondiente Órgano Estadístico Específico.

Las necesidades generadas en el orden estadístico, referidas a los sectores que constituyen el área de actuación del Departamento de Sanidad, aconsejan y hacen necesaria la creación de un órgano integrado en su estructura organizativa, cuyas relaciones y funcionamiento esté regulado, protegido y limitado por la legislación estadística, especialmente en lo referido al secreto estadístico.

Ondorioz, Osasun sailburuaren proposamenez, Euskal Estatistika Batzordearen txostena jasota eta Jaurlaritzaren Batzordeak 2000ko azaroaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartuta, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Helburua.

1.— Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia sortu eta berorren antolakuntza eta jarduteko modua ezartzen dira dekretu honen bidez. Jaurlaritzaren Sailetako Estatistikarako Organo Bereziak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan xedatutakoa beteko da horretarako.

2. artikulua.- Menpekotasuna.

Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia organo unipertsonala da eta Sail horretako Osasun Plangintza eta Ebaluazioko zuzendariaren menpe egongo da zuzen-zuzen.

3. artikulua. – Eskumenak.

- 1.— Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia I. klaseko organo legetxe eratzen da bere eskumenei dagokienez. Beraz, 180/1993 Dekretuak klase horretako Estatistikarako Organo Bereziei egozten dizkien eskumenak eta ahalmenak izango ditu; honako hauek:
- a) Euskal Estatistika Planaren egitasmorako oinarri izango den Saileko Estatistika Plana gertatzea.
- b) Euskal Estatistika Plana eta Urteko Estatistika Programak gertatzen Euskal Estatistika Erakundearekin batera lan egitea.
- c) Urteko Estatistika Programetan sartutako estatistikak -edo horien aldi batzuk- gertatzea, beroietan zehaztutako moduan.
- d) Euskal Estatistika Planean eta Urteko Estatistika Programetan sartu gabeko estatistika propioak gertatzea, 4/1986 Legeko 8.1 artikuluan jasotako moduan.
- e) Beste erakunde batzuekin harremanak, artikulu honetako c) eta d) idatz-zatietan xedatutakoari doazkion egiteko estatistikoen ondorioz. 4/1986 Legeko 29. artikuluko c) eta d) idatz-zatietan ezarritakoa beteko da beri
- f) Bere eskumendekoak diren estatistikak burutzeko informazioa lortzea, 4/1986 Legeko 9. artikulutik 16.era adierazitako moduan.
- g) Artikulu honetako d) idatz-zati honetan aipatutako eta Urteko Estatistika Programetan ezarritako estatistiken emaitzak argitaratu eta zabaltzea; aldez au-

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, previo informe de la Euskal Estadistika Batzordea / Comisión Vasca de Estadística y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2000,

DISPONGO:

Artículo 1.- Objeto.

1.— Mediante el presente Decreto se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad, y se establece su organización y funcionamiento, de conformidad con las prescripciones del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por la que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

Artículo 2.- Dependencia.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad es un órgano unipersonal que depende directamente del Director de Planificación y Evaluación Sanitaria de dicho Departamento.

Artículo 3.- Competencias.

- 1.— El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad se configura, a efectos de sus competencias, como de la clase I. En su virtud ostentará las competencias y ejercerá las facultades que a los Órganos Estadísticos Específicos de dicha clase atribuye el Decreto 180/1993, y en concreto las siguientes:
- a) Elaboración del Plan Estadístico Departamental que sirva de base al Proyecto del Plan Vasco de Estadística.
- b) Colaboración con el Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística en la elaboración del Plan Vasco de Estadística y de los Programas Estadísticos Anuales.
- c) Elaboración de aquellas estadísticas, o fases de ellas, incluidas en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos que en los mismos se determinen.
- d) Elaboración de estadísticas propias, no incluidas en el Plan Vasco de Estadística ni en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos previstos en el artículo 8.1 de la Ley 4/1986.
- e) Relación con otros organismos como consecuencia de las funciones estadísticas derivadas de los apartados c) y d) de este artículo, observando en todo caso lo establecido en el artículo 29.c) y d) de la Ley 4/1986.
- f) Obtención de información para la realización de las estadísticas de su competencia, en los términos expresados en los artículos 9 a 16 de la Ley 4/1986.
- g) Publicación y difusión de los resultados de las estadísticas referidas en el apartado d) de este artículo, así como de las que se determinen en los Programas Esta-

rretik horien berri Euskal Estatistika Erakundeari eman beharko zaio.

- h) Bere eremuko fitxategi-direktorioak gertatu eta eguneratzen parte hartzea, 4/1986 Legeko 29.i artikuluan xedatutakoaren arabera.
- i) Osasun Sailarentzat interesgarriak diren proiektuak gauzatzea, 180/1993 Dekretuko 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera; batik bat, sektorekako eta azpisektorekako zerbitzuak, azterlanak eta analisiak.
- 2.— Osasun Saileko Estatistikarako Organo Bereziaren eskumenekoa izango da Sail horrek eta Sailari atxikitako erakundeek estatistikaren alorrean dituzten beharrizanei erantzutea, aintzat hartzeke estatistikok datu estatistiko edo administratiboetan oinarritzen direnentz.

4. artikulua. – Jarduteko modua.

Osasun Saileko Estatistikarako Organo Berezia 180/1993 Dekretuko 4. artikuluan jasotako Estatistika Organo Berezien Erregistroan inskribatuko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren eremuan jarduterakoan, estatistikaren alorreko legeak (sekretu estatistikoarena batik bat) bete beharko ditu beste organo eta erakunde batzuekin eta bere Sailari atxikitakoekin izan ditzan harremanetan.

- 5. artikulua. Administrazioaren aurkako errekurtsoak.
- 1.— Osasun sailburuak eskumena du Osasun Saileko Estatistikarako Organo Bereziak hartutako egintzen aurka aurkeztutako errekurtsoak ezagutu eta ebazteko.
- 2.– Errekurtso horiek ebatzi baino lehen beharrezko txostena eman beharko du Euskal Estatistika Erakundeak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. – Ahalmena ematen zaio Osasun sailburuari, Dekretu honetan ezarritakoa garatu eta exekutatzeko behar diren xedapenak har ditzan.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 28an.

Lehendakaria, JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua, GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR. dísticos Anuales, previa comunicación de su contenido al Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

- h) Participar en la elaboración y actualización de los Ficheros-Directorios estadísticos de su ámbito sectorial, según lo previsto en el artículo 29.i) de la Ley 4/1986.
- i) Realización de los proyectos que se consideren de interés por parte del Departamento de Sanidad, especialmente servicios, estudios y análisis de tipo sectorial y subsectorial, en el marco establecido por el artículo 7.2 del Decreto 180/1993.
- 2.— El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad ejercerá sus competencias tanto respecto a las necesidades estadísticas de dicho Departamento como de los entes institucionales que el mismo tenga adscritos, y con independencia de que las estadísticas hayan de elaborarse a partir de datos estadísticos o de datos administrativos.

Artículo 4.- Funcionamiento.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad, una vez inscrito en el Registro de Órganos Estadísticos Específicos previsto en el artículo 4 del Decreto 180/1993, ejercerá su actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi actuando con observancia de la legislación estadística y, en particular, con la del secreto estadístico, en las relaciones que mantenga con otros órganos y Entes, incluidos los pertenecientes o adscritos a su Departamento.

Artículo 5.- Recursos Administrativos.

- 1.— El Consejero de Sanidad será competente para conocer y resolver los Recursos que se interpongan contra los actos dictados por el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Sanidad.
- 2.— La resolución de estos Recursos vendrá precedida de informe preceptivo del Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo establecido en el presente Decreto.

Segunda. – El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2000.

El Lehendakari, JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad, GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.